

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Atal honetan gure proiektuaren azalpen txiki bat egingo dugu, gure ideia azaltzeko. Gaztez osatutako talde txiki bat gara, erleak eta apikulturari buruz interesa daukagunak. Gure proiektuaren helburua ezti sortzea da eta gizartearen ezti nahia asetzea. Gainera, eztiarekin erlazionatutako produktuak ekoiztea ere gustatuko litzaiguke: propoleoa, zera, ... eta haien onurei buruz gizartea kontzientziatu.

Gure proiektuaren ezaugarri berritzaileena banaketa da, uste dugulako eztiaren merkatua pixka bat moteldu dela azken urteetan eta gure banaketa prozesuaren bitartez, merkatua berritu nahi dugu. Gainera gure ekoizpen prozesuan ahalik eta kutsadura gutxien sortzen saiatuko gara eta pertsona zehatzak erabili nahiko genituzke langile bezala, horrela gizarteari eta beraiei lagunduko geniekeelako.

Espero dugu gure proiektua aurrera eraman ahal izatea eta gizartean eragin positibo bat izatea.